



ZESTOA HERRI IKASTETXEA

Bidezarra, 1

20740 - ZESTOA

Tfnoa/Faxa: 943147977

e-mail: 012037aa@hezkuntza.net



## **2021-22 IKASTURTEA**

- 1. SARRERA**
- 2. XEDEA.**
- 3. PREBENTZIOKO-NEURRI OROKORRAK / JARDUERA OROKORRAK**
  - 3.1 Neurri orokorrak**
  - 3.2 Ikastetxean bertaratzea: sarrera**
  - 3.3 Sarrera eta irteera txandak**
- 4. AGERTOKI EZBERDINAK**
  - 1. Agertokia**
  - 2. Agertokia**
  - 3. Agertokia**
- 5. JOLASTOKIA**
- 6. JANGELA**
- 7. HIGIENE-NEURRIAK**
- 8. ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO.**
- 9. FAMILIAK.**



ZESTOA HERRI IKASTETXEA  
Bidezarra, 1  
20740 - ZESTOA  
Tfnoa/Faxa: 943147977  
e-mail: 012037aa@hezkuntza.net



## 1. SARRERA

Pandemiaren faserik kritikoenak gainditu ondoren, eta aurrez aurreko jarduerara pixkanaka eta era mailakatuan itzultzeko, Hezkuntza Sailak ikastetxeei **2021/22 ikasturtearen hasierarako, Koronabirusaren aurrean ikastetxeetan jarduteko protokolo orokorra**, bidali die. Protokolo horretan, antolakuntzako prebentzio-neurriak eta jarduteko jarraibideak ezartzen diren. .

Horregatik, eta une honetan eskura dugun informazioan oinarrituta, hezkuntza-jarduera eta prestakuntza presentziala garatzeko ondoko orientabide hauek planteatzen ditugu, EAEko ikastetxe guztientzat. Araubide orokorreko zein araubide bereziko irakaskuntzak hartu dira aintzat –etapa eta maila guztiak-, zeinak 2021/22 ikasturtearen hasieran indarrean zeuden osasun-baldintzen arabera arautuko baitira. Ondoren **Zestoa HLHI ikastetxeak neurri hauek hartu ditu hurrengo ikasturtea aurrera eramateko.**

## 2. XEDEA

Hezkuntza-jarduera garatu ahal izatea, beti ere COVID-19aren hedatzea ekidin nahiaz hezkuntza-komunitatean; hau da, kalitateko hezkuntzarako eskubidea bermatuko zaie gure ikasleei segurtasun eta osasun-baldintza onenetan, ikastetxeko langileentzat zein ikasleentzat.

Nola nahi ere, Protokoloak izaera **dinamikoa** du, eta osasun-agintariek ezarritako jarraibideen arabera eguneratuko da.

## 3.PREBENTZIOKO-NEURRI OROKORRAK eta JARDUERA OROKORRAK

### 3.1 NEURRI OROKORRAK

1. **Maskarak erabiltzea eta arnas higiena.** Arnas higienerari dagokion arloan sartzen da infekzioa ez barreiatzeko maskarak erabiltzea derrigorrezkoa da.
2. **Eskuen higiena.** Neurri garrantzitsua, eskuek gainazaletatik birusa transmititzeko duten gaitasunagatik. Urarekin eta xaboiarekin egingo da, baita soluzio hidro-alkoholikoekin ere.
3. **Garbiketa**, desinfekzioa eta aireztapena. Sarritan garbitu eta desinfektatuko dira pertsonekin kontaktuan dauden gainazalak. Aldian-aldean eta egokiro aireztatuko da, espazio itxietan kutsatzeko arriskua murrizteko. (klaseen hasieran, tartean eta amaieran irekiko dira leihoak. 5 -10 minutuz. Ateak une oro zabalik izango dira).



ZESTOA HERRI IKASTETXEA  
Bidezarra, 1  
20740 - ZESTOA  
Tfnoa/Faxa: 943147977  
e-mail: 012037aa@hezkuntza.net



4. **Kontaktu-kopurua murriztea.** Mugatu egin behar da talde-jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua. Jarduerak talde egonkorretan egingo dira, talde egonkorrak osatuz eta segurtasun-tartea mantenduz haien artean.

5. **. Bizikidetza talde egonkorrak: ikasleen banaketa zirkulaziorako eta prebentziorako.**

• **Haur hezkuntza:**

- HH2 - HH3 urte: bizikidetza talde egonkor bat osatuko dute
- HH4-HH5 urte: bizikidetza talde egonkor bat osatuko dute

• **Lehen hezkuntza:**

- Lehen ziklokoko hiru koloreek (1 eta 2.mailek) bizikidetza talde egonkor bat osatuko dute.
- Bigarren zikloko hiru koloreek (3. eta 4.mailek) bizikidetza talde egonkor bat osatuko dute.
- Hirugarren zikloko lau koloreek (5. eta 6.mailek) bizikidetza talde egonkor bat osatuko dute.

- **Garraioko ikasleek** bizikidetza talde egonkor bat osatuko dute.

*Bizikidetza talde egonkorreko zerrendak prest daude zuzendaritzako datu basean nahiz inprimatuta zuzendaritzako gelan, protokoloarekin batera. Ez dira hemen berridatziak izango datu pertsonalen babesagatik. Zerrenda hauek osasun saileko ESI-aren esku jarriko dira berak protokoloaren arabera hala eskatzen duenean.*

**6. Materiala:** gela bakoitzean behar den materiala eskolak jarriko du. Beraren garbiketa behar den oro egingo da.

### **3.2 IKASTETXEAN BERTARATZEA :SARRERA**

#### **IRAKASLEAK:**

Ikastetxera bertaratzen denean, sarrera protokoloa egin beharko dute ikastetxeko sarrera bakoitzean:

- Banaka sartuko dira, maskara jantzita.



ZESTOA HERRI IKASTETXEA

Bidezarra, 1

20740 - ZESTOA

Tfnoa/Faxa: 943147977

e-mail: 012037aa@hezkuntza.net



- Sartu orduko eskuak desinfektatuko dira gel hidroalkoholikoarekin.
- Derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea momentu guztian.
- Sintomarik badu, etxera joango da eta zuzendaritzak lan arriskuen prebentzioko medikuari deituko dio honen berri emateko.

## IKASLEAK

Ikastetxera bertaratzen denean, sarrera protokoloa egin beharko dute ikastetxeko sarrera bakoitzean:

- Etxetik tenperatura hartuta etorri behar dira. Inongo sintomarik izanez gero, etxean geratu behar dira eta gurasoek tutoreari abisatu behar diete.
- Txandak/ ordutegiak errespetatuko dira, beharrezko distantziarekin. Talde bakoitza bere ilaran, banaka, maskara homologatuak jantzita etorri behar dira.
- Sartu orduko eskuak desinfektatuko dira gel hidroalkoholikoarekin.
- Lehen hezkuntzako ikasleak (6 urtetatik gorakoak) derrigorrezkoa izango dute maskara higienikoa erabiltzea. Haur hezkuntzakoentzat gomendagarria da.

## BESTEAK:

Eskola komunitatekoak ez diren pertsonak: Sarrera nagusitik hitzordua badute.

Atezaina: Sarrera nagusitik.

Garbitzaileak: Sarrera nagusitik.

Sarrera nola egingo dute GUZTIEK:

- **Gurasoak hitzordua eskatu beharko dute zuzendaritzarekin edo tutorearekin aurrez aurre hitz egiteko, ikastetxera bertaratu nahi badute. Komunikazioa telefonoz edo emailaz izatea lehenesten da.**
- Sartu orduko eskuak desinfektatuko dira gel hidroalkoholikoarekin.
- Derrigorrezkoa izango da maskara homologatua erabiltzea momentu guztian.



ZESTOA HERRI IKASTETXEA

Bidezarra, 1

20740 - ZESTOA

Tfnoa/Faxa: 943147977

e-mail: 012037aa@hezkuntza.net



### 3.3 SARRERAK ETA IRTEERAK NOIZ ETA NON IZANGO DIRA:

#### Sarrerak (iraila eta ekaina 09:00tan; urritik maiatzera goizean 09:00 arratsaldean 14:30)

HH2: Egokitzapenean sarrerak 9:30etan eta 11:00etan txanpiko atarian. 9:00/09:15 ikasturtean zehar.

HH3: 9:00etan txanpiko atarian. Tutoreak kanpoan hartuko ditu dagokion ilaran.

HH4: Aldapatik igoko dira. 09:00tan tutoreak hartuko ditu dagokion ilaran. Sarrera portxe txikiko atetik 9:15etan. Baranda aldetik igoko dira./14:30 arratsaldean

HH5: : Aldapatik igoko dira. 09:00tan tutoreak hartuko ditu dagokion ilaran. Sarrera portxe txikiko atetik 9:10etan. Baranda aldetik igoko dira./14:30 arratsaldean

LH1: Tuneletik igoko dira. 09:00tan tutoreak/arloko irakasleak hartuko ditu dagokion ilaran. 09:10 sartuko dira./14:30 arratsaldean

LH2: Tuneletik igoko dira. Portxe handian 09:00etan tutoreak/arloko irakasleak hartuko ditu dagokion ilaran. Horma aldetik igoko dira, banaka ilaran./14:30 eguerdian

LH3: Aldapatik igoko dira. 09:00 tutoreak/ arloko irakasleak hartuko ditu dagokion ilaran. Sarrera nagusitik sartuko dira. Baranda aldetik igoko dira./14:30 eguerdian

#### Irteerak (iraila eta ekaina 12:00tan; urritik maiatzera 16:30tan)

HH2 :Egokitzapen garaian 10:15eta 11:45etan txanpiko atarian. 12:20 ikasturtean zehar.

HH3: 12:30etan txanpiko atarian. Tutoreak kanpora aterako ditu dagokion ilaran. 16:30 arratsaldean

HH4: 12:25etan ilaran baranda aldetik jaitsiko dira tutorea/ arloko irakaslearekin portxe txikira. Aldapatik jaitsiko dira gurasoekin./16:25 arratsaldean

HH5: 12:30etan ilaran baranda aldetik jaitsiko dira tutorea/ arloko irakaslearekin portxe txikira. Aldapatik jaitsiko dira gurasoekin./16:30 arratsaldean

LH1: 12:30tan ilaran horma aldetik tutore/arloko irakaslearekin portxe handira. Tuneletik jaitsiko dira.

LH2: 12:30etan ilaran horma aldetik tutore/ arloko irakaslearekin jaitsiko dira portxe handira. Tuneletik jaitsiko dira./16:30 arratsaldean

LH3: 12:30etan baranda aldetik ilaran jaitsiko dira tutore/ arloko irakaslearekin sarrera nagusiraino. Aldapatik jaitsiko dira./16:30 arratsaldean

### ZIRKULAZIOA ESKOLAREN BARNEAN

#### ARLOETAKO GELAK/SAIOAK

- Gelara sartu aurretik gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbitu beharko dituzte **irakasle eta ikasleek. Irakasleek banatuko dute.**
- **Gela une oro aireztatuta egon behar du(saioaren hasieran, tartean eta bukaeran). Ateak une oro zabalik egongo dira.**
- Gelan maskara jantzita egon beharko dira segurtasun neurria ezin bada mantendu, bai ikasle bai irakasleak.



ZESTOA HERRI IKASTETXEA  
Bidezarra, 1  
20740 - ZESTOA  
Tfnoa/Faxa: 943147977  
e-mail: 012037aa@hezkuntza.net



- Saioaren amaieran bizikidetza talde ezberdinek konpartitzen diren geletako (ingelesa, natura/ gizarte, musika, plastika eta gorputz hezkuntza) mahaiak, aulkiak, ordenagailuak desinfektatu beharko ditu irakasleak hurrengo taldea sartu baino lehen.

## PASILOAK

- Ilaran joan beharko da, korrikarik egin gabe.
- Sarrera /irteeran berokia eskegi/ jaso ondoren eta dagokion arloko irakaslearekin dagokion gelara/ irteerara joango dira.

## KOMUNEN ERABILPENA: BAKOITZAK BERE SOLAIRUKO KOMUNA ERABILIKO DU.

- Segurtasun-tartea mantenduko da komunetan; beraz, ezarritako distantzia mantendu dezaketzen pertsonak bakarrik erabili ahalgo dituzte.
- Estalkia itxita dagoela botako da katetik.
- Komunetik irten baino lehen, erabili duenak eskuak garbituko ditu, eta iturria ireki eta itxiko du papera erabiliz
- Komunak goizeko saioak eta arratsaldeko saioak hasi aurretik garbituko dituzte garbitzaileek .

## 4. AGERTOKIAK

**1. agertokia:** lehen normaltasun-agertoki bat, Ikasturtea irailean hasiko da, aurrez aurre, etapa eta maila guztietan.

Hezkuntza sailburuordeak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako 2021-2022 ikasturtea antolatzeari buruz emandako Ebazpenetan garatzen den bezala, aurrez aurreko hezkuntza-jardueran segurtasun- eta osasun-neurri batzuei eutsiko zaie, betiere Osasun Saileko agintarien jarraibideei eutsiz.

**Espazioen/ departamenduen antolaketa:**

### HAUR HEZKUNTZA

Txokoen bidez aurrera eramango da. Ordutegia antolatuko da eguna gela batean (antzerkia edo etxea) izan ahal izateko.

Espezialistak (Musika, Ingelesa, Psikomotrizitatea, aholkularia, PT, hezitzailea, laguntzak) gelan sartuko dira segurtasun neurriak jarraituz.



ZESTOA HERRI IKASTETXEA  
Bidezarra, 1  
20740 - ZESTOA  
Tfnoa/Faxa: 943147977  
e-mail: 012037aa@hezkuntza.net



## LEHEN HEZKUNTZA

Departamenduetako antolaketa, egoera berriari egokituta, aurrera eramango dira.


Ikasleak gelan, distantzia mantenduz ahal denean, maskara jantzita, talde txiki egonkorretan kokatuta egongo dira bakoitza bere materialarekin. Mini eramangarria/ ordenagailua erabiliz gero, bakoitzak berea paperarekin garbituko du.

Aholkularia, PT, hezitzailea gelan sartuko dira segurtasun neurriak jarraituz.

Gelak saio bakoitzaren bukaeran desinfektatuko ditu irakasleak.

HIPIko laguntzak talde txikian emango dira, bizikidetza taldeko kideez osatuta, beste gela batean segurtasun arau guztiak bermatuz.

## Gorputz Hezkuntza



- Maskara jantzita eramango dute une oro (distantzia ezin bada bermatu) eta ariketa/jolasa egokituko da.
- Ezingo dira dutxatu. Kamiseta aldagarria ekartzea aukeran(gomendarria) izango dute LHko talde guztiek, saioaren ondoren kamiseta garbia janzteko.



ZESTOA HERRI IKASTETXEA

Bidezarra, 1

20740 - ZESTOA

Tfnoa/Faxa: 943147977

e-mail: 012037aa@hezkuntza.net



**2. agertokia:** tarteko bigarren jokaleku bat, osasun-egoerak prebentzio-neurriak gomendatzen dituena, ikastetxeak irakaskuntza-jarduera malgutasunez antolatzen behartuko dituena, aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoa txandakatu eta aldi berean egin ahal izateko.

Ikasle batzuk gelan aurrez aurreko klaseetan egongo dira eta beste ikasle batzuk etxean konfinatua. Azken hauekin, tutoreak komunikatzeko ordua finkatuko du.

Berlaratze arauak 1.agertokiko bereak izango dira.

**3. agertokia:** Hirugarren eszenatokiak konfinamendua eta ikasgelaz kanpoko hezkuntza-jarduera ekarriko ditu.

Irakasleek bere jarduerarekin jarraituko dute normaltasunean, ikasleen hezkuntza-jarduerak ez dezan inolako etenik izan.

Agertoki hau irailaren hasieran gauzatuko balitz, egun bat hartuko litzateke irakasleak bere ikastaldeari aurkezteko eta azalpenak emateko. Ikasleak talde txikitan hurbilduko dira ikastetxera. Aurretik, tutore bakoitzak, telefonoz / emaila bidez, azalduko die familiei noiz eta zein ordutan azaldu behar diren, beti ere segurtasun neurriak bermatuz.

Ikasturtea hasita, bat-batean gauzatuko balitz, egunak zehaztuko lirateke, behar den kasuetan material bila etortzeko. Aurretik, tutore bakoitzak, telefonoz / emaila bidez, azalduko die familiei noiz eta zein ordutan azaldu behar diren, beti ere segurtasun neurriak bermatuz.

LHko ikasleen lan tresna Classroom-a izango da.

HHkoena sites-a.

## **5. JOLASGARAIA**

**Ordutegia/ esleitutako eremuak bizikidetza talde bakoitzari (ikus 1 eranskina)**

HH 2 ETA 3 URTE : ordua: 11:00etan Txanpiko jolastokian.

LH : ordua 10:30 Bizikidetza talde bakoitzak bere eremua du esleituta.

HH 4 eta 5 urte: ordua: 11:00 Jolas eremua: parke berria/ portxe txikia

### **HH2 URTE ETA 3 URTE**

Bai sarreran bai irteeran, ikasleak gelara kokatu eta txandak errespetatuko dituzte.

Irakasle bat arduratuko da komuneko joan-etorri egokiak izan daitezen.





ZESTOA HERRI IKASTETXEA  
Bidezarra, 1  
20740 - ZESTOA  
Tfnoa/Faxa: 943147977  
e-mail: 012037aa@hezkuntza.net



## HH 4 ETA 5 URTE

Bai jaisterakoan bai igotzerakoan, ikasleak gelaka kokatu eta txandak errespetatuko dituzte.

Irakasle bat arduratuko da komuneko joan-etorri egokiak izan daitezen.

## LEHEN HEZKUNTZA

Jolastokian: ORDUA10:30.

Jolastoki osoa eremuetan banatuko dugu. Ereku bakoitzak jolas batzuk izango ditu. Bizikidetzaren egonkorreko talde bakoitzari eremu bat esleituko zaio astean zehar. Taldeak ezin izango dira nahastu.

Denak igotze arte, besteak ezin dira jaitsi.

Bai jaisterakoan bai igotzerakoan, ikasleak gelaka kokatu eta txandak errespetatuko dituzte.

Irakasle bat arduratuko da komuneko joan-etorri egokiak izan daitezen.

## 6.JANGELA

Aurten ez da ez ohiko bazkaltiarrik onartuko, jangelako neurriekin ezin dugulako segurtasuna bermatu.

- Txanpiko jantokian txanda bat izango da. Ordua:12:30
- Goiko jantokian bi txanda egingo ditugu:

HH 4 eta 5 lehenik eta LH1 lehen txandan. Ordua:12:30

Lh2 eta LH- bigarren txandan. Ordua: 13:15

Mahaietan bakoitzaren tokia esleituta izango dute eta bizikidetzaren egonkorreko taldeko kideak elkarren inguruan kokatuko dira.

1.5m-ko tartea izango dute bizikidetzaren talde batetik bestera.

Bazkaldu ondoren bizikidetzaren talde egonkorreko ikasleek elkarrekin jolastu ahal izango dute esleitutako eremuan.

Higiene- neurriak: sarreran/irteeran eskuen garbiketa, paperezko aho zapiak.



ZESTOA HERRI IKASTETXEA  
Bidezarra, 1  
20740 - ZESTOA  
Tfnoa/Faxa: 943147977  
e-mail: 012037aa@hezkuntza.net



## 7.HIGIENE NEURRIAK

### Protokolo orokorrean jasotakoak eta eskolako protokolo honetan behin eta berriz errepikatutakoak.

#### Derrigorrezko neurriak ikastetxean:

- **Neurri higienikoak.** Eskuen garbiketa eta desinfekzioa.
- **Maskaren erabilera** derrigorrezkoa izango da LHn.
  - Haur Hezkuntzatik: orokorrean, maskararen erabilera borondatezkoa izango da. Garraioko ikasleek maskara erabili beharko dute bidai osoan zehar.
  - Lehen Hezkuntzako 1go mailatik aurrera: derrigorrez erabili beharko da.
  - Maskara motari dagokionez, higienikoa (homologatua) edo kirurgikoa izango da, laneko arriskuen prebentzio zerbitzuak bestelakorik agindu ezean.

## 8. ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO.

- a) COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle edo langileak ez dira eskolara bertaratuko. Ez dira bertaratuko, ezta ere, COVID-19a diagnostikatu zaielako isolatuta dauden guztiak, ez eta COVID-19aren sintomak dituen edo diagnostikoa jaso duen inor, ezta lagunen batekin harreman estuan egon delako etxean berrogeialdian dagoen lagun oro ere.
- b) Beren etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren berri emango diete eskolako agintariei eta seme edo alaba etxean mantendu beharko dute.
- c) Zehazki, **gaitzaren sintomak antzemanaz gero** (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...), eskolak seme-alaba jasotzea eskatuko dio familiari, gehienbat ikaslea adingabea denean. Familiak osasun-zentrora deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da.
- d) **Gaitzaren sintomak** eskolako langileren batean agertuko balira, honek eskola utzi eta etxera joango da eta gomendio berberak jarraitu beharko ditu.



ZESTOA HERRI IKASTETXEA

Bidezarra, 1

20740 - ZESTOA

Tfnoa/Faxa: 943147977

e-mail: 012037aa@hezkuntza.net



e) Haur edo irakasleren batek Covid-19n positibo emanez gero, kontaktuztat hartuko da gainerako ikasgela edo taldea, haurrak zaintzeko edo hezteko ingurunean, eta etxeko berrogeialdia egin beharko du 14 egunez, azken kontaktua izan den egunetik zenbatzen hasita. Osasun Sailaren SARS-Cov koronabirusa zaintzeko protokoloari jarraituko zaio (<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berriaren-protokoloak/web01-a2korona/eu/>) eta zaintza epidemiologikoko unitatea izango da.

## **9 .FAMILIAK**

- **Aurrera eraman beharreko neurriak:**

1. Haurrek ezin dute ikastetxera joan sukarra (>37°C) badute. **Horrek esan nahi du familiek ikastetxera iritsi aurretik tenperatura hartu behar dietela etxean.**
2. Laguntzaile hauek ikastetxean sartu ahal izateko, aldez aurretik hitzordua hartzea gomendatzen da.
3. Gurasoak/laguntzaileak ezin izango dira inguruan geratu, taldekatzeak eratu.
4. Haur guztiek izan beharko dute beren maskara, eskola-egunean erabiltzeko higiene-baldintzak bermatuko dituena.
5. Familiak lankidetzan arituko dira ikastetxeak oinarrizko higiene-ohiturak babesteko eta errazteko helarazitako jarraibideekin, hala nola: -ikastetxeko seinaleak errespetatzea -maskara erabiltzea -eskuak garbitzea -aretoak aireztatzea -bizikidetzat-talde egonkorreko kide izatea
6. Ikasle batek sintomak baditu ikastetxean, familiari jakinaraziko zaio; beraz, kontakturako beharrezkotzat jotzen diren telefono zenbakiak eman beharko dira (bat baino gehiago ematea gomendatzen da).
7. Ikasleak sintomak baditu etxean, familiak tutorea jakinaren ganean edukiko du eta aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio.
8. Familiak, ikasleak ikastetxetik kanpo egiten dituen eskolaz kanpoko jardueri buruzko informazioa emango dio ikastetxeari, trazabilitate-arrazoiengatik eskatzen bazaio.
9. Ikasleen gurasoek edo tutoreek eremu emozionalari buruz egoki deritzon informazio guztia helaraziko diote beren semearen edo alabaren tutoreari, eremu horretan COVID-19 testuinguruari lotutako gabezia/zailtasunen bat aurre ikusten denean.



ZESTOA HERRI IKASTETXEA

Bidezarra, 1

20740 - ZESTOA

Tfnoa/Faxa: 943147977

e-mail: 012037aa@hezkuntza.net



## • ESKOLAKO KONTINGENTZIA PLANA

Eskolako web orrian izango dute Covid 19 atalean eta ematen diren aldaketen berri emailuz jasoko dute. Hezkuntzako web orrian ere eskuragarri izango dute "Koronabirusa" atalean zehaztasun guztiekin.

## ERANSKINAK

1 Eranskina

2021-22

ATERI	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
L.H.1	M/G 4 5	1 2 3	4 5	6 7 8	B/G 1 2 3
L.H.2	M/G 1 2 3	6 7 8	1 2 3	4 5	B/G 6 7 8
L.H.3	M/G 6 7 8	4 5	6 7 8	1 2 3	B/G 4 5

EURIA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
L.H.1	JANGELA / MUSIKA GELA PORTXE TXIKIA / GELAK GELAK				
L.H.2					
L.H.3	PORTXE HANDIA / GELAK				
TXANDAK: EGUNA ETA KOLOREAREN ARABERA					



ZESTOA HERRI IKASTETXEA

Bidezarra, 1


20740 - ZESTOA

Tfnoa/Faxa: 943147977

e-mail: 012037aa@hezkuntza.net



## ESKOLAKO PLANOA



**1** SARRERAKO PATIOA

**2** ATERPE TXIKIA

(ping pong-a)

**3** SARRERA

**4** ATERPE HANDIA

**5** PARKEA

**6** LIBRE

**7** FUTBOLA

**8** SASKI

**9** FRONTOIA

**10** JANGELA

**11** GELAK